



SAT
Andalucía

CUT
Aragón

CSI
Asturies

LAB
Euskal Herria

Intersindical Canaria
Canarias

CUT
Galiza

Intersindical Catalana | COS Països Catalans | IAC Catalunya
Intersindical Valenciana

MFS-aren HERRIEN KOORDINADORAREN ADIERAZPENA ESPAINIAR ESTATUKO EGOERAREN INGURUAN

Europa osoan bezala, Espainiako Estatuan ere nabarmena da kapitalismoak sortutako krisi sistemikoa: lehortearren larriagotzea eta muturreko fenomeno meteorologikoak klima-aldaketaren ondorioz, landa eremuaren hustuketa eta horren ondoriozko elikadura-mendekotasuna, migrazio-mugimendu masiboak, energia-iturri fosilen garestitzea nahiz agortzea eta ondorioz, horietan oinarritutako industria-ereduaren bideraezintasuna, kostaldearen turistifikazioa...

Krisi sistemiko honek langileen lan- eta bizi-baldintzetan eragina du. Hazkunde ekonomiko mugagabearen oinarritutako promesa neoliberalaren faltsutasuna agerian geratu da, zeinaren arabera, belaunaldi bakoitzari aurrekoak baino baliabide gehiagorekin bizitzea ahalbideratuko zitzaion. Aitzitik, langile-klasea eros-ahalmena galtzen ari da, eta enplegu bat izateak ez du bermatzen nahikoa baliabide izango dituenik bizi-proiektu autonomo eta bizigarri bat garatzeko. Generoagatiko eta jatorriagatiko arrakala ekonomiko eta sozialek bere horretan dira. Etxebizitzaren prezioek gora egin dute funts putre eta errentariaren espekulazioaren ondorioz. Zerbitzu publikoetarako baliabideak urritu eta pribatizatu egiten dira.

UGT eta CCOOek Espainiar Estatuan osatzen duten gehiengo sindikalak ez du ez borondaterik ezta gaitasunik ere langile klasearen prekarizazio eta pobretze prozesu honi aurre egiteko. Elkarrizketa sozialaren aldeko apustua kaltegarria izan da langile-klasearentzat: patronalak gerra bide guztietatik egiten duen bitartean, bake sozialaren giro faltsua eszenifikatzen da.

Hala eta guztiz ere, 2008ko krisiaren ondoren aldarrikapen sozialak eta aldarrikapen laboralak indartu izanak, eta ezkerreko subiranismoa indartu izanak, batez ere Katalunian, Galizan eta Euskal Herrian, baina baita Valentzian eta Balear Uharteetan ere, politika neoliberalen eta ultraeskuindarren kontrapisua sortu da, zeinak politika horien ondorioak, posizio indibidualista, matxista eta arrazistak elikatzeke erabiltzen dituen.

Azken hauteskunde orokorretan ultraeskuinari bidea itxi izana eta periferiako nazioetako indar kontserbadoreek lagunduta Estatu bipartidismoan oinarritu izan den "78ko erregimena" kudeatu duen diseinu politikoa baldintzatu izana albiste ona da. Positiboa da, halaber, lurralde-ereduari eta 2008tik aplikatutako murrizketa-politikari buruzko eztabaida zabaldu izana.

Hala ere, estatu mailan gerta daitezkeen aldaketa politikoak mugatuak izango dira, baldin eta Espainiar Estatu nazio bakoitzean aldaketa politiko eta sozialeko prozesuetan oinarritzen ez badira. 78ko Erregimenaren alternatiba Estatuaren antolamendu politiko eta ekonomikoa aldatuko duten prozesu eratzailak sortzea da. Ildo horretan, Espainiako Estatu Munduko Federazio Sindikalaren Herrien Koordinadora osatzen dugun sindikatuok, 140.000 afiliaturen ordezkari gisa, honako hau adierazten dugu:

Coordinadora de los pueblos de la Federación Sindical Mundial; CSI Asturias, CUT Aragón, CUT Galiza, IAC Catalunya, Intersindical Canaria, Intersindical Catalana, Intersindical Valenciana, LAB Euskal Herria, COS Països Catalans Catalunya, twitter.com/@@Peoples_WFTU



SAT
Andalucía

CUT
Aragón

CSI
Asturies

LAB
Euskal Herria

Intersindical Canaria
Canarias

CUT
Galiza

Intersindical Catalana | COS Països Catalans | IAC Catalunya
| Intersindical Valenciana

1. Trantsizio eko-sozial eta feminista justua eskatzen dugu; eredu sozio-ekonomikoaren erdigunean pertsonen eta planetaren bizitza egotea, eta ez pertsonen eta ekosistemen ustiapenaren kontura aberasten den oligarkiaren onurak. Enpleguaren, zainketen eta aberastasunaren banaketa aldarrikatzen dugu. Ultraeskuinari, indibidualismoari, matxismoari nahiz arrazakeriari bidea ixteko konpromisoa hartzen dugu.
2. 2008aren ondoren ezarritako murrizketa guztiak bertan behera gelditzea eskatzen dugu, besteak beste, 67 urterekin erretiroa hartzea, kaleratzeak merkatzea edo zerbitzu publikoen garapenari ezarritako mugei dagozkienak. Enplegu eta pentsio duinak izateko eskubidea aldarrikatzen dugu, baita hezkuntzarako, osasunerako eta zaintzarako eskubidea bermatuko duten zerbitzu publikoak ere. Espainiako Konstituzioaren 135. artikulua indargabetzea eskatzen dugu, zeinak botere ekonomikoen interesak langile-klasearen eta herri-klaseen premien gainetik jartzen dituen.
3. Estatuaren izaera plurinazional eta linguistikoa aitortzea eskatzen dugu, baita Estatu osatzen duten nazioen autodeterminaziorako eskubidea ere, eta, bereziki, langileen lan- eta bizi-baldintzei buruz erabakitzeke eskubidea. Gure herrialdeetako hizkuntza nazionalak jasaten ari diren erasoak salatzen ditugu.
4. Antolaketa eta borroka sindikalean berresten gara, baita herri-mugimenduekiko lankidetzan ere, lantokietatik, kaletik eta erakundeetatik langile-klasearen aldeko aldatetak sortzeko. Zentzu horretan, beharrezkoa da behingoz sindikalgintza borrokalariaren aurkako Lawfare patronala amaitzea.
5. Langile klaseari esparru guztietan ultra-eskuinaren gorakadari aurre egiteko dei egiten diogu; lantokietan, kalean eta erakundeetan. Ildo horretan, datozen Europako hauteskundeei begira, herritarrak aktibatzeke deia egiten dugu. Atzerritarrei buruzko Legea eta asiloaren eta migrazioaren aldeko Europako Ituna indargabetzea exijitzen dugu.

2024ko maiatzak 7

Coordinadora de los pueblos de la Federación Sindical Mundial; CSI Asturias, CUT Aragón, CUT Galiza, IAC Catalunya, Intersindical Canaria, Intersindical Catalana, Intersindical Valenciana, LAB Euskal Herria, COS Països Catalans Catalunya, twitter.com/@@Peoples_WFTU